

balkei

2006ko OTSAILA,
14.1. ZENB. DOHAINIK

tribu berria ote?



SAHARAKO ISLADAK ZUMAIAN

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Itziar Mora

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbietta

Itziar Garate

Izaskun Urbietta

Maitane Agirre

Lure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo, Unai

Gijarro, Joanito Dorronsoro,

Eneko Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Benat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain

hartzeko aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
orain hamar urte	6
ze berri	7
ipuina	13
argazki erreportajea elurretan	15
elkarrizketa sahara	18
kirola futbol	24
piraguismoa	27
natura colimbo txikia	28
kultura	30
skins zine forum	
agenda	34



argazki erreportajea
zumaia elurretan
Aurten ere zuri-zuri
agertu zaizkigu
Zumaiaiko hainbat
txoko.

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiaiko Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Ssspaña!!!

Zerbait aitortu behar dizuet: Zapatero Madrileko gobernura heldu eta gutxira, eskuin muturreko komunikabideen web orrietara engantxatu nintzen. Libertad Digitalen sartu eta aurpegia alaitu egiten zitzaidan; nahikoa nuen Jimenez Losantosen artikululu bat irakurtzen hasia irribarrea pizteko. "Kazetari" horren inpotenziaren lekuko ziren panfleto, sermoi edo basakerien amaierarako ordenagailuaren aurrean doblatuta egoten nintzen malkoak ezin eutsirik. Agian zuetako askok pentsatuko duzue oso umore aldrebesa dudala. Ez dizuet kontrarik egingo. Bai, hala da.

Azkenaldian, ordea, Interneteko orrialde horietatik deskonektatzea pentsatu dut. Joder, ez naiz ba Rajoyren hizkera pastosoa imitatzen hasi! Ssspaña! Ssspañoles! Eta ez hori bakarrik, Acebesen imitazioa ere jada perfektionatzen hasia naiz. Ay, dios, urrutiegi joan ote naiz nire perbertsioekin?!

Orain gutxi Cid Campeador hauen web orrian sartu nintzen eta Ssspañaren osotasunaren aldeko erreferendum eskaerarekin egin nuen topo: ¿Consi-

dera conveniente que España siga... bla, bla, bla? Galdera luzea, ulertezina, baina askoek, ardiek bezala, txintik egin gabe sinatuko dutena.

Ssspañolek bere iritzia emateko eskubidea dutela zioen Rajoyk. Kauensos, hauek bai demokratik! Nahastuta geunden denok. Baina... egon pixka bat. Ez al zuten hauek Spock mehatxatu Euskadin erreferenduma deitzen bazuen? Ez al zuten hori ekiditeko lege bat onartu? Bai, ezta? Madrileko tertulianoak jada larritzen hasiak dira: Ssspañaren aldeko firma bilketa akats kolosala omen da; PPrendondamendia ekarriko omen du; desmenbrazioa, kaosa, apokalipsia... Esango nuke "Mad Max 4"-ren sinopsia dela. Egia izango balitz, behintzat.

Eta bitartean Reala maldan behera doa eta martxoaren 5ean oscarrak banatuko dira. Zer ikusi duten hauek aurrez esandakoarekin. Ezer ere ez, baina beno. Ondo segi.



Juan Luis Romatet

dani



zuMiami (edo bi tipula eta bi aguakate = 6,55 euro)



xa 2

Presaka ginen, lankide bat eta biok. Laneko afaria genuen gauean eta azken erosketak egiteko genituen, azken orduan beti bezala. Amak sekula ez garela espabilatuko esaten digunean, muturra okertu eta alde egiten diogu. Baina, berriz ere, arrazoa galanta. Beti berandu. Beno, presaka ginen.

Denda batera sartu ginen, eta erosi beharrekoak aukeratu genituen: bi tipula eta bi aguakate. Menuan entsalada genuela esatea ez da beharrezkoa, ezta? Ez genuen besterik behar, gainerakoak erosita genituelako. Dendariak poltsan sartu zizkigun gauzak eta batuketa egiteari ekin zion. Makinak ez du gezurrik esaten; beraz, 6,55 euro. Txintik ere egin gabe ordaindu genuen, baina

biok ere seko harrituta. Garestitxo aukeran. Erosketak eginda eta begi bat gutxiagorekin joan ginen afaritara. Hori Zumaian gertatu zen, baina Euskal Herriko beste herri askotan gerta zitekeen. Euroarena adarjotze kontinentala izan da. Ados. Baina batzuetan matematikak ez didate ongi funtzionatzen. Izan ere, prezioak orokorrean igo egin dira, baina ez toki guztietan berdin. Elkarte gastronomikoetan garagardo bat hartu, edo gauza bera taberna batean eskatu: alde ederra. Barazkiak azokan baserritarrei erosi, edo denda, delicatessen edo supermerkatuan erosi: alde ederra. Prezio guztiak igo egin dira adarjotze kontinental honetan, eta beste batzuk puztu egin dituzte. Bigarren hau ziri sartze herrikoi bezala definitu genezake. Batetik besterako alde eder hori nork sartzen du patrikara? Esan dut, ez da Zumaiako kontua bakarrik. Baina gero eta gehiago entzuten diot jendeari etorkizuneko Zarautz-txiki izatearen beldurra. Izen soilak prezioak puztzen dituen egoera ero horretara iritsiko ote gara? ZuMiami. Batzuetan garestiegi irtetzen zaigu marka erregistratua.

**GAZTE, S.L.**
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitzan, fabrilari eta herriko argietan

Trenbide 5. pabiloia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 2
Tel. mugikorra: 608 143409


**Alai Auzategia, 2**
Tel. 943 14 33 24

**Itzurun**
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
- PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

**Emilio Perez**
Elektragarri, telefono eta instalazio
elektrikoen salmenta eta konponketa

ADI

BASADI 28
20750 ZUMAI
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@euskalnet.net

Orduan bai ederki



Orain 10 urte horixe esaten zuen Esther Aizpuruak Librean atalean, herriak hainbat aldaketa izan zituela-eta. Egia. Orduan bota zituen Patxangak bere azken malkoak. Orain inguru horretan entzuten den negar bakarra, bankutik irteten direnena...

Barra ere garai hartan inauguratu zuten. Ez al duzue gogoratzen? Bada, orain 10 urte, kirol portuari buruzko eztabaida bizi-bizia zen Zumaian.

Orain 10 urte... San Juan egoitzakoei buruzkoa izan zen erreportajea, eta orduan egiten zituzten jarduerak azaldu genituen. Ez dago gaizki, orain ere horrela jarraitzen badute, orduko aldizkarian esaten genuen bezala, urteei bizi-tza ematen!

Orain 10 urte, emakumea izaten zen familia plangintzaz arduratzen zena.

Halaxe zioen herriko emaginak, Jaione Iregik. Ordurako, gauzak asko aldatu zirela zioen, baina lan franko zegoela egiteko. Oraindik ere, gazteek orduan bezain gaizki informatuta jarraitzen dutelako irudipena dugu guk...

Orain 10 urteko aldizkarian aurrekontuak onartu zituztela genioen, eta gazteak ez zeudela oso pozik, horientzako diru gutxi gorde zutela-eta. Zer nahi duzue esatea, orduan ere saltsak izango ziren, baina azkenean aurrekontuak izan genituen...



Orain 10 urteko aldizkarian Aita Mari nor izan zen gogora ekarri genuen. Zuek gogoratzen al duzue? Beno, bere irudiak, behintzat betiko lekuan jarraitzen du.



Zuei zer iruditzen, ORDUAN BAI EDERKI, ezta?

ILEAPAINDEGIA
IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760

Arantza Aramendi
EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

**TOMAS
TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitarteak

E. Gurruxaga plaza

943 86 19 16

2006rako aurrekonturik oraindik ez dugu

Iazko urte amaieran horiek onartu behar zituzten, baina bozkatu ere ez zituzten egin. Ordudanik, alderdi batzuek Udalak bizi duen egoerari buruzko iritzia plazaratu dituzte, eta orain, alkatetza duen EAJ izan da bere iritzien berri eman duena.

Zumaiako Udalak ez du aurtengo aurrekonturik. Iazko urte amaieran horiek onartu behar zituzten udalbatzarrean, baina aurrera ateratzeko nahikoa adostasun ez zenez, bozkatu ere ez zituzten.

Alderdi batzuen iritziz, EAJk orain arte oso lasai gobernatu du beste alderdiekin adostasunera heltzeko beharrik gabe, EAren aldeko botoak zituelako. Orain, berriz, desadostasunak agertu dira gobernuakideen artean, eta PNV bakarrik geratu da aurrekontuak onartzeko.

Ezker Batuak, esaterako, EAJri beste alderdiekin harremanetan jartzeko eskatu zion orain hilabete, eskualdeko zenbait hedabideetan egindako adierazpenetan, "Udalak lehenbailehen aurrekontuak lor ditzan". EBren iritziz, María Eugenia Arrizabalaga alkatearen kudeaketa oso txarra izan da alderdi politikoen arteko hitzarmenak lortzeari begira. "Ez du inoiz gainerako alderdiekin aurrekontuak hitzartzeko jarrerarik erakutsi", zioen orduan EBk. Haien ustez, «aukera ona izan daiteke» hau, alkateak «egin ez duena egiteko: besteekin hitz egitea eta herriko politika negoziatzea». Alderdi guztiekin hitz egiten hastea gustatu-ko litzaiekeela gaineratu zuen EBk.

Izustarrak ere gure webgunean bertan adierazi zuenez, Udaleko azkeneko plenoan aurtengo aurrekontuak eztabaidatu eta bozkatu behar ziren, baina ez zen hala izan, alkateak gaia kendu egin zuelako gai-zerrendatik. "Nahiago izan zuen gaia baztertu bere porrot nabarmena irudikatu baino" zioten. Horien iritziz, "azkeneko hilabeteotan



PNV ez da gauza izan inorekin ados jartzeko, ezta orain arte gobernuakide izan duenarekin ere (EArekin)". Izustarriren iritziz, ordea, aurrekontuena adibide bat besterik ez da, eta oraingo krisi honen jatorria urrutia gotik dator, bi urte eta erdian sufritu behar izan dugun jarreraren ondorioa da". Hala ere, prest azaldu dira aurrekontuei buruz hitz egiteko.

Joan den astean, alkatetza duen EAJ izan da bere iritzien berri eman duena. «Gure ardura argi dugu, eta Udalak martxan dituen egitasmo garrantzitsuen martxa ona, eta gobernarritasuna zilegi egingo dituen akordioetara iristea da ardura da hori», azaldu zuen EAJk. Horretarako, ordea, «ezinbestekotzat» jo zuen aurrekontuak «ahalik eta azkarren izatea». EArekin bi gaietan izan omen dute desadostasuna, Zumaia Lantzen elkarte publikoari eta Odieta inguruko etxeei buruzko gaietan.

EAJk uste du, «zumaiarren onerako, Udalak egun jasaten duen blokeo egoerari irteera aurkitu behar» diotela. Horren aurrean, «gure ardura kontuan izanda», beste alderdiei dei egin die: «Alderdi guztiek publikoki egoera desblokeatzeko egindako eskaintzen aurrean, irtenbidea posible delakoan gaude».

Bigarren eskuko disko eta liburuen II. Azoka

Saharara bideratuko da azokako dirua, *Daralhi* proiektuaren bitartez.

Baleike Kultur Elkarteak bigarren aldiz antolatu du liburu eta disko zaharren azoka. Otsailaren 10ean, 11n eta 12an izango da, ostiraletik igandera, eta bildutako dirua aurten Saharako errefuxiatuei laguntzeko bideratuko da, Zumaiako ikastetxeen bitartez.

Helburua herrian kultura sustatzea, eta beharra duen herrialderen batentzat dirua biltzea da. Iaz, Sri Lankako Batticaloa hirira bideratu ziren batutako 4.028,67 euroak, eta hainbat lan egin da 2004ko abenduko itsasikarak gogor jo zuen lurralde hartan. Aurten bildutako dirua Saharara bideratuko da. Horretarako herriko ikastetxeek bideratu duten ekimena baliatuko da, eta haien bitartez bideratuko da dirua. Dakizuenetz, Maria eta Jose ikastetxeko eta Zumaiako Herri Eskolako ikasle eta irakasle talde bat joango da apirilean Saharara, eta haiek eramandako laguntzari gehituko zaio azokan bildutako dirua.

Azokan bigarren eskuko liburu, disko, komiki, bideo, DVD eta bideo jokoak izango dira salgai. Turismoa bulego aukeratu dute hori egiteko. Hortaz, etxean dituzuen liburu, diska eta bideo zaharrak bertara eraman otsailaren 2a baino lehen.




Saharari buruzko mahai-ingurua

Ostiral honetan Saharauen egoerari buruzko mahai-ingurua antolatu du Baleikek, azokaren atari.

Mahai-inguru horretan Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkarteko kide diren Gurutze Irizar, Rafa Zulaika eta Dani Arizala arituko dira solasean arratsaldeko 19.30etik aurrera Oxford aretoan, eta Joseba Ossa izango da moderatzailea.

Jendeak Saharako errefuxiatuen egoera gertutik ezagutzeko egingo da mahai-ingurua.



Ea egia den!

Urola Kostako HITZAK 2 urte HANDI!!

Urola Kostako HITZAK laster 2 urte beteko ditu: otsailaren 20an, eta ospatzeko festa antolatu dute.

Orain beteko dira bi urte Urola Kostako HITZA egunkaria eguneroko bidea egiten hasi zenetik. Horren harira, otsailaren 18an, larunbata, HITZA argitaratzeko lanean aritzen diren guztien eta gainerako lagunen artean festa giroko afaria antolatu dute Azpeitiko Añota sagardotegian; eta, jakina, HITZAREN laguntzailerak diren euskara elkarteak eta gizarte eragileak ere ospatuko dute.

Zarauzko Agosti eta Barrena trikitilariak ariko

Txartelak, HITZAREN Zarauzko eta Azpeitiko egoitzetan eta zorian agurrak jartzeko herrietan barrena ditugun lekuetan daude dagoeneko salgai.



Orain 2 urte, HITZA presta-tzen

dira giroa alaitzen, eta baita eskualdeko bertsolariak ere: kostaldetik, Nahikari Gabilondo eta Iñigo Manzidor, Mantxi. Urola aldetik beste bi bertsolariak arituko dira, nahiz eta izenak oraindik sekretupean dauden...

Sagardotegiko afaria 22 euro kostako da; afaria eta sagardotegira joateko eta

handik bueltatzeko autobuserako txartelak, berriz, 26 euro ordaindu beharko dira.

Elkarrekin egoteko eta HITZAREN II. urteurrena ospatzeko aitzakia ederra da otsailaren 18koa. Beraz, animatu eta parte hartu!

Riomundo liburuaren aurkezpena Zumaian

Zumaian aurkeztu du Jon Maia bertsolariak bere lehen liburua, Hitzak eta Baleike aldizkariak antolatuta. Hilaren 2an aurkeztu zuen Riomundo eleberria, Oxford aretoan.

Jon Maiaren azalpenak entzuteko herritar dezente elkartu ziren. Luze aritu zen liburuaz eta haren nondik norakoez, eta hotz egon arren, jendeak gustura entzun zuen. Gogoan izan zituen, adibidez, Albaceteko eta Extremadurako guraso eta aiton-amonak.

Riomundo, egilearen familiaren historian oinarrituta dago. Maiak aurkezpenean azaldu zuen bezala, «etorkinei omenaldia» egin nahi izan die liburuan, «maketo, mantxurriano, hezurbeltz eta antzekoak errazegi esan izan zaielako». Izan ere, beren herritik ihesi etorritako jendea baitzen, «eta zer laguntza izan zuten haiek gizarteratzeko?» galdetzen zuen Maiak. Hala, liburuan «ezkerretik aberzaletu den jendea» azaltzen dela esan zuen, bere familiaren historia gogoratu.



Hotzari aurre egin eta eskean



Larunbat goizean 15 lagun inguru elkartu ziren Bertso Eskolak antolatutako santa eskean. Hotzari aurre egiteko ondo babestuta, hasieran Azkizu, San Prudentzio eta Kanpaiaga inguruko baserriak bisitatu zituzten, Txakolinaren Ibilbidean barrena. Barrenak pixka bat berotu eta bazkalondoan

Sarrondotik hasi eta Agerrera bitarteko baserriak pasatu zituzten, Agerre bertako Irati eta Artabillako Aloña trikitiarekin lagun zituztela. Kopletan Jon Maia, Baxakarte eta Unai Gijarro aritu ziren, ederki, eta Erribera kaleko tabernetan egin zituzten azkeneko saioak. Datorren urtean gehiago!

dekorazioa
ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^o Korta Industrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

TXINGURRI
Koop.Elk.
Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARRATZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinaren diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak.
Balorazioak

Gijarrotarrak erniarraitz sariketan



Otsailean jokaturako da Azeptiko Erniarraitz Bertso eskolak antolatzen duen sariketako 3 kanporaketa eta finala eta tartean izango dira Zumaiaiko Bertso eskolako bi ordezkari, Unai eta Jokin Gijarro, hain zuzen. Kanporaketa horietako bat Zumaian izango da, gainera, otsailaren 17an, eta hantxe abestuko dute Gijarro anaiek. Finala 24an jokatu dute Azeptian, kanporaketa bakoitzeko irabazleek eta 3 puntuazio altuenak lortu dituztenek. Txapelketaz, partaideez eta egin beharreko lanez argibide gehiago baleike.com-eko blogen atalean aurkituko duzu.

Johanesena, gure bertso-bloga

Baleikek blog komunitatea prestatu izana aprobetxatu eta Bertso Eskolak ere bere txokoa zabaldu du bertan. Aurretik hantxe jarriko ditugu berriak, argazkiak (santa eskekoak, saioetakoak, aurreko urteetakoak...), bertso-paperrak, etab. JOHANESENA izena Joanito Dorronsororen omenez jarri zaio eta Bertso Eskolaren ikurrean ageri den txapeldunak ere Johannes izena duelako. Sartu eta parte hartu!!

II. KANPORAKETA: ZUMAIA

Otsailak 17, gaueko 10etan, Aita Mari zineman

Aurkezle: Jon Maia

1. Aritz Aranburu (Zarautz)
2. Egoitz Eizagirre (Orio)
3. Jokin Gijarro (Zumaia)
4. Unai Gijarro (Zumaia)
5. Beñat Gaztelumendi (Añorga)
6. Unai Muñoa (Lasarte)



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



'baleike.com', lehengo eta bat-bateko informazioa: hemeroteka eta blogak

Azkenaldian berrikuntzak izan ditu gure webguneak, eta blog komunitatea eta hemeroteka osatua gehitu zaizkio.

AITOR MANTEROLA

Zumaiarrek Interneten duten bilgunea, erreferentea eta elkar-gunea bilakatu da 'www.baleike.com'. Iazko irailean sortu zen, informazio bizi-biziaren erronkari aurre egiteko, eta sekulako arrakasta izaten ari da. Joan den astean, 200. erabiltzailea erregistratu zen, eta egunero-egunero, zumaiar mordoa da webgunean sartzen dena. Parte hartze horri esker, era guztietako informazioa dago eskura, eta albisteei buruzko iritzia emateko aukera ere badenez, askotan sortu izan dira eztabaida interesgarriak webguneko erabiltzaileen artean.

Blogak

Arrakastak arrakasta, aurrera begira dago 'baleike.com', eta baditu berrikuntzak. Horietako bat da blog komunitatea. Orain gutxitik dago informazioan eta parte hartzean oinarritutako webgune horietakoak sortzeko aukera. Azken batean horixe direlako blogak: webguneak. Baina badute orain arte ezagutu ditugunetatik desberdintasun nabarmen bat: norbera da bere webgunea sortu eta kudeatzeko arduraduna, eta bertan parte hartzeko aukera edonork du. Bloga sortzen duena da nahi duen informazioa edo argazkia sartzen duena, eta horrek sekulako iraultza ekarri du, informazioa zabaltzeko modua aldatu duelako mundu osoan.

Baleikeko blogak zumaiarrek edo Zumaiako taldeek sor ditzakete, eta, hasiera bada ere, erantzun ona izan du ekimenak. Oraingoz, zortzi blog daude:

- Epiolatik
- Zumaiako Zikloturista Elkartea
- Zumaiako Kirol Elkartea
- Naturaren Txokoa
- Johannesena
- Piraguisten Txokoa
- Poparian
- ZUGA

Hemeroteka osoa

Webguneak sortu zenetik izan duen atala da hemeroteka. Bertan, Baleike aldizkariaren zenbaki guztiak formatu digitalean biltzeko asmoa zegoen, baina orain arte ezin izan da dena osatu. Azkenean, ordea, hemeroteka dena sartu ahal izan da, eta Baleikeren 140 zenbakiak sarean daude.

Bestelako berrikuntzak ere izango ditu laster webguneak. Aldizkariak gain, bestelako argitalpenak ere atera izan ditu: gehigarriak, liburuxkak...Bada, horiek ere berandu baino lehen izango dira formatu digitalean 'www.baleike.com'-en.

BLOGAK SORTZEKO www.baleike.com/blogak/

Helbide horretan sartuta aurkituko dituzu hainbat zumaiar eta Zumaiako taldek sortutako guneak. Zure bloga sortu nahi baduzu, animatu eta parte hartu!!

Nola sortu blog bat?

Blog bat sortzeko nahikoa duzu Bloga sortu atalean klik egin eta bertan agertzen diren pausoak jarraitzea.

Nork sortu dezake bloga?

Edozein pertsona edo taldek sortu dezake, beti ere lizentzian adierazitakoak betetzen baditu.

Baleike.com-en erregistratuta egoteak balio du?

Ez. Baleike.com-eko erregistroa webgunearen atal horretara mugatzen da. Blogak sortu eta kudeatzeko atal honetan erregistratuta egon behar da Bloga sortu atalaren bidez.

Bloga sortu dut. Nola kudeatzen da?

Kudeaketaren atalera jo behar duzu.

Bertatik kudeatuko duzu zure bloga: berriak gehitu eta editatu, kategoriak eta albumak sortu, erabiltzaileak gehitu, txantilioiak aldatu, etab.

Informazio gehiago blogen orrian bertan. Laguntza behar izanez gero: blogak@baleike.com

Errezoak

Etxeko inork errezoen beharra badu ere, ez dut errezatuko. Goizaldean komunera jaikitzen naizenean, ia gauero, seme-alaben ohe hutsak ikustean, "ondo izango al dira dauden lekuan daudela ere, ez dezadan patua tentatu", pentsatzen dut. Eta kito. Zehatz hitz eginaz, haien ohe hutsak ikustean esan beharrean, haien ohe hutsak sumatzean esan beharko nuke halere, ezen gaueroko paseoa argia piztu ere egin gabe egiten baitut; eskuak sorbalden parean, ahurrak kanpoaldera, behatzekin barne gepeseak agindutako planoan marrazten.

Esnatu eta, maskuria hazita sumatzen badut, lehenbailehen jaikitzen naiz lozorro egoerari eusteko edo. Izan ere, gaztetako lo eder hura, telefonoaren txirrinari ere eusten ziona, galdu nuenetik -batek daki noiz-, kontuz-kontuz zaindu beharreko zera gutziatsu bat bihurtu zait loa.

"Gaztetako lo eder hura, (...), galdu nuenetik (...) kontuz zaindu beharreko zera gutziatsu bat bihurtu zait loa"

Nire lehenengo lo egin ezinak, udako jaiak bukatuta, lanean hastearekin batera izaten zirela konturatu nintzen behinola. Urterokoa izaten zenez, etsita nengoen. Gainera, nire ustez, kontrolatuta neukan. Ai gaixoa, noiz eta nola ez dakidan arren, urteak aurrera, oporren aurreko hilabeteko goizalde asko ere gaubelan pasatzen hasi nintzen. Bai, zeren, gaua esan arren, goizaldea izaten baita garai fatidikoa. Baina nire bigira aldiak ugaritzen ari zirela konturatzeak ez ninduen gehiegi aztoratu, oraindik egoera kontrolatzen

jarraitzen nuelakoan nengoen, eta, gaur ez bada bihar egingo dut lo, pentsatzeko patxada mantentzen nuen une horietan.

Zoritxarrez, nire zikloa ez zen aipatutako bi epe horietako gorabeheretara mugatzen, nonbait, ez; garapen horretan, nire erlojuaren pilak hezetu egin ziren, inondik ere, eta orratzak kontrolik gabe zebiltzan eguneko orduak gauez jotzen. Hala, lanaldi garaiaren hasierako eta bukaerako gauak ez ezik, edozein garaikoak bihurtu ziren bihurri. Orain noiznahi bisitatzen ninduten



gau-mamuek, eta beldurrari beldur hartzen hasi nintzaion, zeren, oroitzapenen kontrola galtzen denean, loezloko egoera horietan, iragana borrero maltzurrena izatera hel daiteke. Horregatik, nola esan, piztia ez esnatzeagatik edo, gauez argia piztu gabe ibiltzeko ohitura hartu dut.

Emakumeek, gizonak ez bezala, adin txar bat izaten dutela dio gure amak, erretirokoan odola nahastuta ibili zuela berak, eta esku gaina pasmoz bete zitzaioneko hartan ere, eskapada ederra egin zuela; ez zuela asko pentsatzen orduan, hainbeste urte bizi behar zuenik. Horrelako kontuak, igual karta jokoan ari garenean kanporatzen ditu. Bere oroitzapenekin borroka handia igartzen diot amari. Zer da ba, bestela, buruan beti omen daukan burrunda hori. Eta nola ihes egin, lan egin ezinik, egun guztia pentsatzeko edukita. Horregatik, jokalaria ez izan arren, egunero egiten dugu gure saiotxoak, berak dioen bezala, burua nonbaiten katigatzeko. Hori bai, beti puntuan izan behar du, eta nabari zaio, nahiz eta hamarkada asko pasa, umetan finkatutakoa, bai jokatzeko era eta irabazteko grina bera ere, bere baitan dirautela. Atzo, irribarrez, esan zidan: eta pentsatu umetan errezatzen aritzen ginela karta onak eskuratzeko.

Erreztzeko ohitura hori oraindik ere badu, baina lehen beretzat eskatzen zuena, orain guretzat eskatzen omen du. Errezo marmarra erabiliko du, ez dut ezetzik esaten; baina elizkoa izan denik ezin esan, halere, bai baitzuen nahikoa zeregin ume hazten. Eta kapila ekartzen zutenean ere, igual bi egun botatzen zituen santuak, atetxoak itxita, bere hartan, sarrerako bazter batean, ave maria esanaz maratilaren sokari

tirata etxean sartutako auzokoak utzi bezala. Baten orde, bota iztan bi txanpon, eta eraman, esango zuen amak, argia jarri ere egin gabe eduki dinagu eta. Aita, berriz, elizkoiagoa zen, eta heriotzako ordu larrian, Jaungoikoaren beldur, edo bakeak egiteko aldera, bere nahasmen hartan, ahaleginean aritu zen, behin eta berriz, ni bekatari osatu nahian, gizarajoa.

Zaharrak joaten dira, baina, gazteak borrokan jarraitu behar. Eta hala, ikasketak bukatuta, nola edo halako lan bat aurkitu zuen denboraldi baterako gure Aitorrek. Eguna argitu gabe joan behar izaten zuen lanera, eta trebatu gabeko txofertzan abiatu, gainera. Goizalde horietako batean, jaiki, bere komuneko lanak egin, ozta-ozta zurrutaka zerbait hartzeko denbora sukaldean eman, eta, presaka antzera baina zalapartarik gabe, etxeko argiak itzali ondoren, atea klask, leun, nola itxi zuen sumatu nuen. Eskailerak taka-taka jaitsi ondoren, autoaren burrunba urrutiratzen entzun nuen euri-jasa indartsuaren baitan.

Zilbor hestea tiraka sumatu nuen, urteak ziren erreztzeari utzi niona, zentzurik ez zuen orain jainkoaz gogoratzea, baina, ezinaren ezinean erreztatu egin nuen. Handik ordu laurdenera, ordu erdira, agian, telefonoaren txirrina trumoiaren danbatekoekin nahastu zen. Senarra, zalapartaka, nire bultzadaz areagotutako herioan, aparailuaz jabetu zen, eta tximistaren zohardiaz, entzungailua irentsi beharrean, espantuzko keina irudikatuz eskua kopetara jasotzen, bai-bai mutua buru abailduaz nola marratzen zuen ikusi ahal izan nuen.

FELIXA

H o r t z k l i n i k a

MOZÈS HIRIART eta SOULIER
Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontzia
- * Inplantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

ZALLA

Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A

FARMA ZUMAIA

PARAFARMAZIA

653 01 96 81

PRODUKTUAK


- * Urne eta Haurrentzat, Dietetikoak, Kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- * Dietista, Naturopatia, Iridiologia, Bach loreak, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesiozkoak, Eslesaren, Antsetearen, Buruko minen, Zirkulazio arazoan, kontrakoak), Akupuntura: orratzekin eta orratzik gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA • ZUMAIA

zumaia elurretan



Orain hamar urte bezala, otsaila hasieran Zumaia elurretan ikusteko eta gozatzeko aukera eduki dugu. Eta argazki ederrak ateratzeko ere bai.





Ikusgarriak dira bidali dizkiguzuen argazkiak.



SIWA
Belardenda
Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



Arkupé

*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



Zumaia Hotela
Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Benetako artistak zarete!



English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

S
DORNUTEGI

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maitte
ileapaindegia

herri eskolako eta maria eta joseko irakasleak eta ikasleak

Daralhi edo besarika nazazu

Maria eta Jose eta Herri Eskolako 80 gazte Saharako errefuxiatuen kanpamenduetara doaz, datorren apirilean, 7tik 14ra, hango errealitatea ezagutu eta haiei gure berri ematera.

BALEIKE

Samuel eta Ibon irakasleekin eta ikasle talde batekin elkartu gara, eta jator asko erantzun diete gure galderei.


Nondik sortu zen Saharara joateko ideia?

Ikasle 1: Orain dela bi urte, orduan gure adina zuten ikasle batzuei bururatu zitzairen, eta irakasleei esan zieten. Hasieran, lan handia zela ohartu ziren, baina pixkanaka-pixkanaka, bi urtetan, guk jakin ez arren, irakasleak eta lanean aritu dira, eta, orain arte.

Ikasle 2: Izan ere, erakusketa bat egin zen herrian, Maria eta Josen eta, hori ikusita bururatu zitzairen ikasleei bidaiarena.

Ze ikasgaitan lantzen dira horrelako gaiak ikastetxeetan?

Ibon: Ikastetxe bakoitzak bere dinamika dauka, baina Samuel



eta ni Sahararen aldeko taldetan sartuta gaude bestela ere, eta behin baino gehiagotan joan gara Saharara. Maria eta Josen Elkartasun Astea antolatzen dugu, eta lantzen dugun gai bat da, adibidez, errefuxiatuena: errefuxiatuak munduan zehar. Gai hori eskolan landu genuenean atera zen Saharako gaia. Orduan sortu zen ideia. Frente Polisariokoak etorri ziren hitzaldiak ematera, diapositiba emanaldiak, eta hainbat gauza egin genituen. Eta, orduan, ikasleei bururatu zitzairen: "aizu, eta guk zerbait egin dezakegu?"

Samuel: AEO edo etikan urtero ateratzen dira zenbait gai, eta klasean lantzen dira. Horrez gain, noski zerikusia du gu talde txo batean sartuta egoteak. Azken urteetan, Sahararen aldeko janari-bilketak egitean ere animatu gara, eta kartelak egin... Lan horrek gaia lantzea eskatzen du. Gainera, jendeak ugari parte hartu izan du horrelako kanpainetan herrian. Zumaiara udaran ere haurrak etortzen dira, familietan egotera, eta, adibidez, hondartzan hango bat ikusi eta umeak esaten dute "hara, begira, saharaiya", eta, jakina horrek ere girotzen lagutzen du.

Nork antolatu ditu gauzak?

Ibon: Eta garrantzitsuena da beraiek egin dutela dena, ikasleek: janari bilketa, etab. Beraiek antolatu beraiek egon, etab. Samuel- Bai, gu gaude nolabait geldiarazteko; izan ere, utziko bagenie, urrutiago joango lirakeke.

Daralhi izena du proiektu honek. Zergatik izen hori?

Ikasle 1: Haien hizkuntzan *daralhi* "besarka nazazu" esan nahi du eta...

Samuel: Bai, guri bururatu zitzaigun. Batekin hitz egin eta bestearekin hitz egin, proiektu idatzi genuen, izena jarri behar zitzaion, Iboni bururatu zitzaion. Eta ibili ginen ea nola idazten zen ikertzen liburuetan, eta hasieran gaizki idatzi genuen. Baina, gero, saharar batek esan zigun eta ondo jarri genuen.

Ibon: Oporraldian gazteak etorri ziren batean, hiztegitxo bat atera zen, hangoei laguntzeko, bai eta hemengoei haien hizkuntza zertxobait ulertzeko. Orduan hiztegi horretan oinarritu ginen, eta pentsatu genuen, "hau polita izango huke: *daralhil*". Gainera, besarka nazazu esanda zera esan nahiko genuke: Saharako gazteak eta Zumaiako gazteak bat egitea.

Eta hau dena nola jarri zenuten martxan?



"Azaldu genien hura ez zela saharara oporretara joatea bezala"



Ikasle 1: Hasieran zurrumuru batzuk entzun genituen, irakasleak gaia atera zuten behin baino gehiagotan, baino inoiz ez serio-serio. Baina egun batean, klasera sartu eta esan ziguten "orain serio ari gara..."

Ikasle 2: Hasieran ez ganuen sinesten, baina, gero... Pixka bat ezagutzen genuen hango arazoa, baina ez asko ere. Hala ere landu izan dugu klasean irakasleekin.

Ikasle 3: Gure eskolan hasieran jende gehiago animatu zen; orain gutxiago gaude.

Nola aukeratu dira taldeak, arduradunak, etab?

Samuel: Ez dugu zailtasunik izan jendea aukeratzeko. Ideiaren berri eman genuenean, denak batera baietz esan zuten, baina proiektua azaltzen joan garen heinean, gutxiago. Kontuan da azaldu genielako hura ez zela Saharara oporretara joatea bezala... eta lan pila egin behar dela joan aurretik, mugitu egin behar zutela, eskolaz kanpo ere elkartu beharko zutela taldeka;

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Airra** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
french
euskara
englantí
español
catalonián
suomi
basco
catalá
finnois
francés
anglés
catalán
francés
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



ad

AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

orduan jende dextek egin zuen atzera.

Ibon: Argi genuen joan aurretik, landu egin behar zela zer den Sahara, zein den hangoen egoera, egoera politikoa... Jakina, horrek lana eskatzen du, ikastea eskatzen du. Ikasleei esan genien, aizue guk eduki batzuk eman behar ditugu, eta ikasi egin behar dituzue. Eta zuen inplikazioa behar dugu: agian, 5etatik 6etara gelditu beharko duzue. Orduan, batzuek esan zuten "hortaz, gu ez gara gelditzen", eta argi geratu zen. Beste batzuek, berriz, oso konpromiso handia hartu dute, eta oso gustura gaude.

Ikasle 1: Izan ere, sekulako esperientzia hartzen da, eta horrelako aukera bat ez dugu berriro izango. Ze inporta dute ordu-txo batzuk...

Kanpoko jendeak, gurasoek... zer moduz hartu zuten?

Ikasle 1: Guraso batzuei kritika egin behar diegu; izan ere, Sahara entzun eta guraso batuk beldurtu egin ziren, babestu egin nahi gaituzte. Ikasle askok egin du atzera horregatik.

Ikasle 2: Jendea dago gogo handiarekin, joan nahi duena, baina gurasoek ez diete uzten.

Ibon: Gertatzen dena da, jendeak ez-jakintasan handia duela, Sahara entzuten dute, eta burura etortzen zaizkie gerra, minak, eta ez dakit zenbat gauza. Jende asko egongo da prest urterotertero Sahararako janari-bilketan parte hartzeko, baina jendea ez da ohartzen benetan zein den hango arazoa. Gogoratzen dut lehenengo bilera egin genuenean gurasoentzat, batek galdetu zuela, "aizu, baina han ez da arriskurik egongo, minak edo?". Jendeak ez daki benetan hango egoera zein den.

Ikasle 3: Nik uste horrelako kontu baten aurrean, ezin dela itxi guztiz, lehenengo jakin egin behar dugula nora goazen, zertara goazen, nolako tokia den... eta batzuk erabat itxi dira hasieratik.

Ikasle 4: Batzuk, behintzat, oso triste egon dira hasieratik.



"Besarka nazazu esanda zera esan nahiko genuke: Saharako gazteak eta Zumaiako gazteak bat egitea"

Eta inork aldatu al du iritzi bilera horien ondoren?

Ikasle 1: Ez dugu uste, inork ez du iritzi aldatu bilera hauetan.

Samuel: Bilera hauetan, aurkeztu genuenean programa hau, ekarri genuen saharar bat, eta hango egoera azaldu zien gurasoei. Guraso asko etorri ziren, eta, beraz, interesa bazegoen, baina dirudienez, askok ez dute iritzi aldatu.

Arazoi ekonomikoak izan dezakete horren errua? Gurasoek batere dirurik jarri behar al dute?

Ikasle 1: Ez... Ezin liteke; izan ere, horrelako gauza batera dirua izan al daiteke arrazoia. Ez dakit, dirua behar dugu, baina askotan diru gehiago gastatuko lukete guri mp3-a erosten edo beste gauza batzutan.

Zein da proiektu honen helburua?

Ikasle 1: Alde batetik, haien kultura ezagutu, eta gauzak haiekin konpartitzea. Beste alde batetik, haiek jakitea munduan badagoela beste lurralde bat beraiekin dagoena, bada, lagungarria da. Ez da janaria bidaltzea bakarrik; kontua da beraiekin jakitea, beste leku batzuetan ere beraiekin dagoela jendea. Gauza asko egin nahi ditugu han: ospitaleak bisitatu, eskolak pintatu, jokoak erakutsi, ...

Eta zuek zer ekarriko duzue handik?

Ikasle 1: Guk ez dakit jokoak ikasiko ditugun, baina esperientzia handia izango dela dudarik ez.la

Ikasle 2: Han nola bizi diren eta ikusiko dugu. Adibidez, emakumeekin topaketak egingo ditugu, nola bizi diren jakiteko.

Eta zer pentsatzen duzue emakumearen hango egoeraz?

Ikasle 1: hango emakumearen rola nabarmen izango da tradizionalagoa, gure ustez.

Ibon: Beno, gu ohartzen gara herri musulmana dela, eta, hortaz, horrek eragin izango duela hango emakumearen rolean. Baina jakin badakigu, hura errefuxiatuen kanpamendua izanik,



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

ARROZTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA



ez dugula gizon askorik ikusiko; izan ere, denak frentean daude, eta, orduan, kanpamenduetako martxa guztia eta zeinek eramaten du? Emakumeek eramaten dute han guztia: udal-txeak, eskolak, familiak... Emakumeen papera da hil hala biziko da; emakumeak lan hori egingo ez balu errefuxiatu kanpamendurik ez legoke.

Bestalde, han ikusiko dugu bezala, bazkaltzeko, adibidez, gizonezkoak alde batetik jango dutela eta emakumezkoak bestetik. Lana emakumeek egiten dutela ere bai. Baina hori kulturala da, eta gure asmoa ez da hura aldatzea, baizik ulertzea eta ezagutzea. Emakumeen papera zein den ezagutu nahi dugu. Horregatik, esaterako, Saharako astearen barruan, Martxoaren 8rako ekitaldi bat antolatuko dugu, hango emakume bat etorriko baita. Eta han, ikasleek nahi badute, hango emakumeekin hitz egiterik izango dugu.

Non egingo duzue han lo, jan,...?

Ikasle 1: Han bertan, beraiekin, beraien haimetan.

Ikasle 2: Taldeka egongo gara, bosnaka. Han lo egiteaz gain, bazkaldu, etab.

Ibon: ...eta tea hartu eta pila bat hitz egin haiekin...

Zein hizkuntzetan hitz egingo duzue haiekin?

Samuel: Gaztelaniaz

Ikasle 1: Denek ez dakite, baina gehienek bai, pixka bat bada ere.

Ibon: Lehen Espainiako kolonia izan zen, eta horrek eragiten du. Bestalde, espainiar asko etortzen dira udaran, eta hango

umeeek berehala ikasten dute. Zailtasunekin bada ere, gehienek dakite.

Ikasle 1: Eskolan haien hizkuntza ere pixka bat erakutsi digute (hassanya).

Ibon: Izan ere, hainbeste ordu haima batean familia batekin igaro behar badute, komunikazioa egon behar du.

Hango familia bateko nagusiak gerra garaiko kontuekin hasten denean ze egin behar duzue (ikasleei begira)? Ba, entzun, jaso eta jaso.

Ikasle 1: azken finean, haien etxera goaz, beraien lurraldean egongo gara.

Zer gehiago egin da ikastetxeen aldetik?

Ibon: Ikastetxeen aldetik, ziurtatu nahi izan dugu proiektua aterako zela; alegia, diruaz ari gara. Zenbait zailtasun izan dira eta proiektua luzatu egin da. Bi fase genituen: orain bigarrena da, eta hemendik aurrera hasiko da, gaia lantzen: nora goaz, zergatik goaz eta zein da hango arazoa.

Bestea da inplikazioa; ikasleak berak lanean orain dela bi aste hasi ziren, eta janaria biltzen ere lehenago. Orain arlo teorikoa hasiko gara. Izan ere, gauza asko prestatu behar dira; esate baterako, pintura lortu behar da, eskola pintatu nahi badugu. Hori dena lana da eta antolatu egin behar da.

Samuel: aurreko sei hilabetetan, agian gehiago saiatu gara, gurasoekin elkartu eta azalpenak ematen, informazioa zabal-tzen, ikasleak kontzientziazten, bai eta irakasleak eta Eskola Kontseilua ere. Adibidez, Gabonetan, gurasoek berek eskaini zigten eskean ateratakoa proiektu honetarako hartzeko. Horretarako egin zen lehenengo ekintza izan zen. Gero, azken hiruhilekoan, klasean landu dugu. Orain lantaldeak egin ditugu, dena prestatzeko.

Zein izango da lantalde bakoitzaren lana?

Samuel: Lantalde bakoitza bere aldetik lanean aritzen da, eta lantalde bakoitzaren arduradunak eta gu noizbehinka elkartzen gara.

Hau konpromiso handia izango da ikasleentzat, ezta?

Ikasle 1: Bueno, horrelako gauza bat izanda, ordubete edo bi ordurengatik uko ez diogu egingo.

Samuel: Egia esan zailtasuna batzuk badituzte elkartzeko; izan



MENDI - ONDO c.b.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Martxoaren 6tik 12ra:
Sahararen aldeko astea.

Martxoaren 11: Saharar
eguna.

Zinea eta hitzaldiak
izango dira, eta
erakusketa eder bat,
haima eta guzti



ere, bakoitzak ditu hainbeste gauza eta ekintza eskolaz kanpo... asmoa zen hamabost egunetik behin elkartzea. Aste honetan zenbait erabaki hartu behar ditugu. Proposamen asko daude, eta orain aztertu egin beharko dira.

Zein dira lantaldeak?

Ikasle: Ba, talde bakoitzak bere arduraren hartu zuen: antzerki taldea, dantza taldea, eskolak pintatzeko taldea, kirolen taldea, finantziario taldea, ordenagailuena, sendagaiena, jokoena.

Ikasle 2: Talde bakoitzak gauza desberdinak prestatuko ditu. Adibidez, dantza taldeak iristen garenerako pentsatu behar du zer egin. Han, aireportu militarra iristen garenean, Kulturako ministroa etorriko zaigu ongiatorria egitera, eta dantza egingo dugu.

Ikasle 3: Eta antzerki taldeak, antzerki mutua prestatu du; izan ere, han euskaraz hasten bagara...

Ikasle 4: Sendagaien taldeak, botikak biltzen saiatzen ari gara, eta familian sendagileak dituztenei galderak egiten. Jokoen taldeak, berriz, hango umeei erakutsi nahi dizkie joko batzuk eta herri kirolak, hemengo ohiturak ezagutzeko.

Samuel: Inesek berak ulertzen du guk baino gehiago horrelako gauzetaz; horregatik, bera da talde haren koordinatzailea.

Eta zer behar mota dituzte hangoek?

Ikasle 1: Gauza asko. Esate baterako, urak kare kontzentrazio handia izaten du eta horregatik hortzetako arazoak izaten dituzte. Horiek sendatzekoak adibidez.

Samuel: Bai, haien eskaerak eman zaizkie talde bakoitzari, baina oraindik biltzen ari gara.

Han zer egingo duzue egunero?

Ibon: Guk egunerokoa planifikatuko dugu. Izan ere, han erre-fuxiatu kanpamendu batean, beratakoak nahikoa lan badute, beren bizitza egiten gu hara karga baten moduan joan gabe. Horregatik, gu saiatuko gara ahalik eta planifikatuena ibiltzen. Hala ere, lekua den bezalakoa delako, seguruenen, ezingo dugu egunero pentsatutako egin, eta haien martxaren arabera agian aldatu egin beharko dira planak egun batetik bestera.

Han, eskola margotuko dute, hango gazteekin batera, eta horixe da garrantzitsuena, gainera, hangoekin arituko direla eta harremana sortuko dela. Gazte topaketak ere izango dira: jolasak, musika, antzerkia, kankak, dantzak...

Samuel: Denok arin-arina egin behar omen dugu han.

Zuekin beste jenderik ba al doa?

Ibon: Bai, kazetari pare bat eta kameraria doaz gurekin, erre-portajeak egiteko. Izan ere, joan aurrekoa, hango eta ondorengo esperientzia kontatuko dute bideo batean. Asmoa da, gero, bideo horrekin ikasleak beste ikastetxeetara joatea, beren esperientzia kontatzera.

Samuel: Hala ere, dena ez lana izango. Azken egunean, adibidez, afari bat egingo dugu dunetan, hango musikarekin...

Zenbat zarete?

Ikasle 1: 80 ikasle eta 10 irakasle.

Samuel: Beno, helduak 20 izango gara; horien artean, Ines peditra, pare bat informatiko, kazetariak, eta gurasoren batere bai.

Ba, gure aldetik ondo ibili eta sekulako esperientzia ederra izan dadila!



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01



Kantauni Plaza 6, behea tel. 943 117 406



L
I
B
R
E
R
I
A

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

ZOZKETA!!

Zumaiako txokoak

Asmatzen duzuenon artean, euskal literaturako eleberri batzuk zozketatuko ditugu.



Erantzunak elkartea@baleike.comera bidali edota Baleikeko buzoian utzi (Juan Belmonte 29 behea) otsailaren 10a baino lehen. Erantzunekin batera izen abizenak eta telefono zenbakia jarri.

baleike.com

Berrehun gara!

Baleike.com webgunea abian jarri genuenean, inoiz 100 lagun erregistratuta izatea ikaragarria izango zela iruditu zitzaigun. Hasi eta urtebetera, ordea, berrehun gara! Duela hilabete webgunean agindu genuen bezala, 200.ak saria du, gainera: Talasoterapia saioa bi lagunentzat. Eta irabazlea: jlarroiabe izenaz erregistratutako laguna. Zorionak!

Zumaia eta inguruak ez ditugu behar bezala ezagutzen, altxor txikien jabe gara eta askotan ez gara konturatu ere egiten... Txoko honek lagunduko digu gure txokoak ezagutzen.

GALDERA:

Zumaian eta inguruko lurretan ermita edo elizatxo asko daude. Ondotik pasatu eta apenas begiratzen diegun, baina horietako bakoitzak badauka bere berezitasuna eta xarma. Argazkikoa, berez, ez dago Zumaiako lurretan, oso- metro gutxiengatik. Ateko zulotik barrura begiratuta, taberna gehiago ematen du erlijio- eraikin baino...

Ermita gain batean dago, eta handik ederki ikusten da Zumaia. Bistak zoragarriak dira. Oinez, Zumaiako erdigunetik, ordu erdi inguruan han izango gara.

Baina ez dizuegu galdetuko ermitak nola izena duen. Galdera zailxeagoa da. Handik hurre, ermitatik abiatuta doan porlanezko pistaren alboan eta ia batere jaitsi gabe, bi baserri daude Zumaiako lurretan, elkarren ondoan, biak izen berekoak, baina bata "zaharra" eta bestea "berria".

Zer izen dute baserri horiek?

Parte hartu eta zorte on!!

Aurreko zenbakiko erantzuna: Karakas.

Saridunak:

- Aintzane Egaña
- Amaia Uranga
- Bego Urkidi
- Mikel Alkorta
- Juana Alkorta

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Zumaiako 2 - Pedrusko 0

Zumaiako futbol taldeko gizonzkoen talde nagusiak erregionaleko lehenengo mailan jokatzen du. Liderra da Bergarako taldearekin puntutan berdindurik eta

gure taldearen helburua preferente mailara igotzea da. Emaizak argi erakusten duen moduan, ez doaz bide txarretik!



CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

• **Rosi**
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

Oraindik liga amaitzeko partida dezente falta dira, baina gure herriko taldeak inoiz baino hurbilago du mailaz igotzeko ametsa. Hori dela eta, Zumaiakoren partida bat ikustera joan ginen, ea zer-nolako giroa egosten den jakitera.

Entzunda genuen zaleak oso urduri jartzen zirela partidetan, eta egia esan, hori baieztatu dezakegu partida hau ikusi ondoren.

Zumaiako eta Pedruskoren arteko partida otsailaren 4an jokatu zen Aita Mari futbol zelaian, arratsaldeko 5etan. Aurretik, Zumaiako nesken taldea jokatu zen Elgoibarren aurka, eta etxekoek izugarritzko jipoia eman zieten elgoibartarrei: 9-0, alajaina.

16:45 inguruan, mutilak berotze ariketak egiten hasi ziren eta jendea harmailak betetzen hasi zen apurka-apurka.

Pedrusko 9. postuan zegoen eta horregatik partida lehiatua eta gogorra izango zela zirudien. Are gehiago taldearen izen berezi horrekin...

Aurkariak mutil handi eta indartsuak ziren eta partida hasieran dena lasai eta harmoniaz beterik bazihoan ere, laster aldatu ziren gauzak, bai zelaian, baita harmailetan ere.

Lehenengo ordu laurdenean, Zumaiakok aukera gutxi batzuk izan zituen; kanpokoak, berriz, apenas hurbildu ziren Zearretaren atera.

Baina pixkanaka partida gogortzen hasi zen eta zaleak ere urduri ipintzen hasi ziren.

"Bostak iritsi ziren eta harmailetan, gure ezker aldean, etxeko zaleak zeuden; eskuinaldean, berriz, kanpotarren aldeko jendea. Gu, beraz, erdi-erdian; a zer arriskua!"

17. minutuan, gutxi gorabehera, Eneko Arronari sarrera gogorra egin zioten. 20. minutuan, Pedruskoko atezainak Mikel Larbururi penaltia egin zion; horregatik, epaileak txartel horia atera zion atezainari. Penaltia Aitor Aizpuruak bota eta gol sartu zuen.

Zumaiako 1-0 irabazten ari zen, baina emaitzak ez zuen inor lasaitu eta aurkariak ordura arte baino sarre-rra gogorragoak egiten hasi ziren. Epaileak behin eta berriz gelditzen zuen partida, faltan ondorioz. Zumaiakoko jokalaria bat baino gehiago lurrean etzanda gelditzen zen, minez. Horrela, Mikel Larburu aldegetara joan zen, jaso zituen kolpeen ondorioz, eta bere ordeztu Alberdi sartu zen.



Leikin
Zabiztegui, S.L.

Definición: 943 861 412. Dirección: 12014 Estazioko kalea. Teléfono: 943 861 412. Email: info@leikin.com


Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

 **DIGITAL +**

OSA
BARNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzeta

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

Ez al da horrela partida bat hobeto ikusten?

Merezi al du jendearekin istiluetan ibiltzea? Errespetua galtzea? Behin eta berriz iraintzea?

Galdera horien guztien erantzunak norberak bilatu eta hausnartu beharko ditu, baina ea hurrengo partidarenok lasaiago eta umore hobean joaten garen ikustera.

Bestalde, animo jokalaria guztiei eta ea aurten mailaz igotzen zareten. Zorte on!

Momentu horretatik aurrera, ordu-rako bero-bero zegoen giroa are eta gehiago berotzen hasi zen, eta futbol zelaia infernua zirudien.

Alde batetik, Pedruskoko jokalariai Zumaiaokoei sarrerak eta sarrerak egiten; beste aldetik, harmailetan zaleen arteko tirabirak.

Istilu horiek, gainera, pixkanaka-pixkanaka handitzen hasi ziren eta Pedruskoko entrenatzailea ere joko horretan sartzen hasi zen, eta Zumaiaiko zaleen aurka hasi zen.

Irainak izugarrizkoak ziren eta jokalariai ere harmailetako jendearen aurka hasi ziren. Giro beroa, beraz.

Bitartean, partida berdin zihoan. Sarrera gogorak, kolpeak... Gainera, lehen zatia amaitzeaz zegoenean kanpoko atezainari bigarren txartel horia atera zion epaileak, baloia area kanpoan hartu zuelako.

Taldea atezainik gabe ez geratze-ko, Pedruskok beste atezaina atera zuen, jokalariai baten lekuan. Entrenatzaileak jokalariai istilutsuenetako bat kendu zuen eta jendeak hori aprobetxatu zuen aldageletarako bidean jokalariai iraintzeko. Entrenatzaileak momentu horretan argi esan zuen: "Nirekin sartu, baina nire jokalariai bakean utzi".

Giro bero eta gatazkatsu horretan amaitu zen lehenengo zatia.

Atsedendiko 15 minutuak pasa ondoren, bigarren zatia hasi zen.

Harmailetan jendea lasaiago zegoen. Pedruskoko zaleak ez ziren bueltatu eserlekuetara eta horrek zaleen arteko giroa lasaitu egin zuen, gure inguruan, behinik behin.

Aurkariak jokalariai bat gutxiagorekin jokatzen ari ziren eta hori Zumaiaoko jokalariai abantaila handia izan zen. Eraitza ere beraien aldekoa zen.

Baina hori ez zuten behar bezala aprobetxatu eta etxeko taldea galdurik ibili zen bigarren zatian.

Pedruskoko jokalariai gola sartu nahi zuten eta horrekin berdinketa lortu, baina ez zuten atezainaren aurrean asmatzen. Bereziki aipatzea da Zearretak, Zumaiaokoko atezainak, geldiketa oso onak egin zituela.

Beraz, bigarren zatia horrela jarraitu zuen: aurkariak ongi presionatzen eta zumaiairak noraezean.

20. minutuan Pedruskoko atzelari batek bigarren txartel horia jaso zuen eta ondorioz 9 jokalariai geratu zen taldea. Handik pixka batera, Pedruskoko atezainak izugarrizko hutsegitea egin zuen eta Enekok bigarren gola sartu zuen.

Gainerako 25 minutuak lasai pasa ziren. Pedrusko gola egiten saiatu zen, baina ez zuen zorterik izan. Zumaiairrek, berriz, ez zuten gola egiteko beste aukera nabarmenik izan eta partidako azken txistua noiz entzungo egon ziren.


Harmailetan giroa ona izan zen, ez zen izan ez irainik, ez eztabaidarik.



Mota guztietako alzariak

Xanti Osa

Amara plaza, 7
 tailerra: 943 860914
 denda: 943 862385



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santxo auzoa, 22
 tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

Aupa Oier!

Oier Aizpurua 2005eko euskal kirolaririk onena

BALEIKE

2005 urteko euskal kirolari onena izan da Oier Aizpurua Eusko Jaurlaritzaren ustetan. Sari banaketa ekitaldia urtarrilaren 3In egin zen Gasteizko Lehendakaritzan.

Oso pozik dagoela esan zuen Zumaia-ko piraguistak, beretzako eta euskal piraguismorako bultzada garrantzitsua izango dela uste baitu. Sariak ezustean hartu duela ere gehitu du Oierrek, eta eskertzeko orduan ez ditu Itxas Gaineko kideak ahaztu: "saria nik jasoko dudan arren, Zumaia-ko Itxas-Gain talde osoak irabazi duela sentitzen dut; nire emaitzak, atzean dagoen jende mordoaren lanaren ispi-lua besterik ez baitira".

2005 denboraldi bikain bati amaiera ezin hobea ematen dio.



Zumaia elurretan, eta Oier uretan.

Gogoratu urte horretan Munduko txapelketa, Europako txapelketa, Munduko Kopa, eta, gainera, gabo-

netan Gipuzkoako Kirol Prentsak emandako Gipuzkoar onenaren saria irabazi dituela.

goibicun kornioa besteakaberia
garrabi: 15m.-4m.

GARRAIOAK
Asensio Artetxe Iturbe

Tel: 943 557 189 / 655 706 557
Iruñeri, 5-2A (Zumaia) • Adzpigoina, 16-E (Mirreñari)

Tapaia
Tapaia

Erribero Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 79

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

SAIOA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**

TALAI

INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIK 943 143323
Ortega y gasset, 1

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

Hegodunen joan etorriak

ITSASO IBARRA

“Zumaia hegaztien munduan Gipuzkoako toki onenatarikoa da”. Hala dio Aitor Leizak. Azken 15 urteotan 250 espezie inguru pasa omen dira bertatik. Udaberrian Afrikatik Europara migratuko duten hegaztien artean, 300 hegazti mota pasako dira Euskal Herriko zerutik eta

horietatik 80 bat espezie geratuko dira Zumaian umatzen.

Hainbat hegazti dira hemendik igarotzen direnak. Aitorrek azaldu duenez, Euskal Herria hegazti migratzaileak ikusteko zonalde aproposa da: “Pirinioen mendi lerroa oso barrera natural gogorra da. Bertan ekaitza badago, hegaztiak bazterretik edo kostaldetik etortzen dira. Euskal



Herria Pirinioen mutur batean dago eta tradizioz oso leku ona da”.

Hegaztien migrazioen artean bi garai ezberdinu behar dira. Batetik, neguan hotzetik ihesi Eskozia aldetik hegoalderantz doazenak eta, bestetik, udaberrian, berotik ihesi Afrikatik Europarantz datozenak.

Neguan oso goian umatzen diren hegaztiak etortzen dira. Hotzari ihesi datoz, baina Aitorrek dioenez, “Janaririk ez dutelako aurkitzen etortzen dira”. Antzarak, zuriak nahiz beltzak, eta beltzargak agertzen dira garai honetan. Aurten, berriz, Eskozian umatzen den hegazti bat etorri da, *Colimbo chico*: “Ubarroiaren antzekoa da, baina mokoa zuzena du. Gipuzkoan horrelako bi edo hiru besterik ez daude”.

Colimbo chico ez da izan Zumaian ez ohiko hegazti bakarra. Ameriketara izan diren urakanetatik ihesi, inguru haietako hegaztiak ere agertu dira inguruetan. Zumaian, *Gaviota raidora americana* izenekoa egon zen egun batez eta Bizkaian *Gaviota raidora de franklin*.

Udaberrian, berriz, hegaztiak berotik ihesi Afrikatik Europarantz joaten dira eta garai honetan pasaran makina bat hegazti ikus daitezke: urretxindorra, usua, oilagor-

“*Colimbo* ez da izan ez ohiko hegazti bakarra. Ameriketara izan diren urakanetatik ihesi, inguru haietako hegaztiak ere agertu dira”

ra, kulixka... “Lehen 200 bat kulixka etortzen ziren; orain, berriz, 50 bat besterik ez dira agertzen”. Hegazti hauek leku askotatik datoz.

Hegaztien gripea

Aitorrek dioenez, “Errumaniatik etor daitezke eta hor ere badago hegaztien gripea”. Europar Batasunak debekatu egiten du kontrapasa garaian ehiza; hala ere, urte askotan Gipuzkoa eta Bizkaian ez da debekua aurrera era-

man. Aurten Gipuzkoan ezin izango da ehizatu; Bizkaian, berriz, bai. “Arriskua migratzen ari direnen artean kutsatutako hegaztiren bat badago eta hori baserrietako hegaztiekin kontaktuan jartzean eman daiteke. Baina hona gaitza daraman hegazti bat etortzea zaila da: Afrikatik kutsatuta dagoen bat Penintsulatik pasatzen bada, edo hurrengo udazkenean erabakitzen badute Espainiatik behera joatea etor daiteke baten bat”.

“Hegaztien gripea arriskutsua izango da birusak pertsona batetik bestera kutsatzeko gaitasuna garatzen badu. Hala ere, kutsatutako hegaztiekin denbora luzean kontaktua izan duten pertsonak kutsatu ditu”.

dekorazioa
ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Industrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAVITZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

TXINGURRI
Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak.
Balorazioak



- * Eguneko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517

KABI
TABERNA - ZUMAIA
Tel. 943 143379

Kresala
Taberna

Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869

Botadun kaskamotzak

HAIZE GALARRAGA

Azken boladan *skinhead* modaren hainbat jarraitzaile ikus daitezke Zumaian, gero eta gazteagoak, gainera. Naziaren etorrera delakoan herritarrak beldurtu ez daitezzen eta amaren bat baino gehiago bere semearen piurengatik asaldu ez dadin, mugimendu honi buruzko xehetasun batzuk eman nahi izan ditugu, *skinhead*-en historia batzuek uste baino luzeagoa baita.

Hastapenak

Skinhead mugimenduaren sustraia Jamaikan aurki ditzakegu, 50eko hamarkadaren bukaeran. Garai hartan, Ameriketako estatu Batuetako irratsaioak entzuten hasi ziren Karibeko uhartertan, eta, horren ondorioz, *Rhythm and blues* eta *Jazz*-a bezalako erritmoak sartu ziren bertara. Musika mota horiek, *kalipso*-a bezalako jamaikar musika tradizionalarekin nahastu ziren, eta geroago *Ska* bezala bataiatu zen erritmorantz eboluzionatu zuten. *The Skatalites* bezalako talde berriek, laster zabaldu zuten ska musika dantzagarri eta alai uharte osoan.

Skaren inguruan, *Rude Boys*-ak sortu ziren. Gazte algaratsuak ziren, gansterrak bezala janzen zire-



nak, eta *ska* era basatian dantza egitea eta poliziekien liskarretan ibiltzea ziren euren denborapasa gogokoena.

1962an Jamaikak independentzia lortu zuenean, gazte askok Erresuma Baturantz emigratu behar izan zuten bizitza hobere baten bila. Bertan, *Mod* tribu frikiaren partaideekin elkartu ziren, bai kalean, bai *pub*-etan. Tribu horien arteko nahasketa eta eboluzioa zirela medio, gazte talde berri bat sortu zen. Langileak imitatu nahian, ile motza, *Doc Martens* botak eta tiranteak erabiltzen zituzten proletarioko kide izateaz harro zeudela adierazteko... *Skinhead*-ak ziren.

Oi! musika

Skinhead mugimenduak indarra galdu zuen 70eko hamarkadaren erdialderako; horrekin batera, *ska* musikak ere behera egin zuen eta *skin* kopurua jaitsi egin zen, eta leku jakin batzuetan bakarrik ikus zitezkeen.

Egoera horren erdian, amorruez beteriko gazte andanak Erresuma Batuko kaleak bete zituzten bat-batean. *Skinhead*-ak ez bezala, gazte hauek ile koloret-suak eta arropa arraroak zeramatzen, punk mugimendua jaio zen, eta, gainera, musika genero berri batekin zetozen. *Skinhead*-ak bezala, punkiak oso haserre zuden gizarte kontserbadore britainiarrekin eta laster geraturatu ziren elkarrengana bi taldeak.



ALBAITARITZA
KLINIKA

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astelenetik ostegunera 16:00-19:00
ostiralak 11:30-19:00
larunbatak itxita
alde zurretik deitu

Basadi, 7 beheha
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608-775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituztenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltza

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

gidatzeko baimen guztiak





Punk mugimenduak hasierako indar hori galdu zuenean *skinhead*-ak euren musika propioa egiten hasi ziren. Hasieran *streetpunk*-a deitu zitzaion, baina laster "Oi!" bezala ezagutarazi zen Cockney Rejects taldearen "Oi!Oi!Oi!" abestian oinarriturik. Musika mota hau jotzen hasi zirenak, besteak

beste, Sham 69 eta Angelic Upstarts izan ziren.

1979 aldera, talde multirrazialak agertzearekin batera, *ska* musikak gorakada nabarmena izan zuen, batez ere *The Specials* eta *Madness* taldeen eskutik. *Skinhead*-ak *ska* musika entzuten jarraitu zuten, baita kasu askotan jotzen ere.

Naziak

Punkiek, sarritan, probokatzeko intentzioarekin gehien bat, sinbolo naziak erabiltzen zituzten (Sid Vicious ezagunak, adibidez). BNP eta National Front alderdi ultraeskuindarrak punkiek eta horien inguruko gazteek gizartearekiko zuten desilusioaz baliatu ziren euren magaletara erakartzeko. Horren ondorioz, gazte talde faxistak *skinhead* estetika erabiltzen hasi ziren, nazi-punkak ere



sortu ziren, baina horien itxura euren ideologiarekin bat ez zetorrenez oso indar gutxi izan zuten. *Skin* naziak gero eta indar gehiago hartzen hasi ziren, batez ere morboaz bizi diren komunikabideetan, horregatik, gaur egun, jende askok *skinhead* mugimendua orokorrean nazia dela uste du. *Naziak* diren *skinhead*-ak *bonehead* (artaburuak) bezala ezagutzen dira.



Pedro Pico eta *Pico Vena*, "EL Jueves" aldizkariko komiki bateko pertsonaiak dira. Azagra marrazkigileak, *skinhead* eta punki batek osaturiko bikote baten abenturak

kontakten dizkigu era humoretsu eta azido batean. Komikiak, drogak, polizia, okupazioak eta kontzertuak bezalako gaietan oinarritzen dira.



- * Eguneko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Julio beobide 3, tfn. 943 019 869

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

BEDUA
ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69



S.H.A.R.P

Komunikabideen laguntzarekin, *Skinhead* naziak mundu osoan zehar ugaldtu ziren, eta benetako *skinhead*-ak baino gehiago izan ziren. Horren aurrean, 80ko hamarkadaren bukaeran *Skin Heads Against Racist Prejudice* (Aurreritzi arrazisten aurkako *skinhead*-ak) eta *R.A.S.H.* (*Red & Anarchist Skin Heads*) nazien aurkako *skinhead* elkar-
teak sortu ziren Estatu Batuetan. Elkarre horien helburu nagusiak jendeari *skinhead*-en benetako izaera antirrazista erakustea eta naziak desagerraraztea dira.

Gaur egun, Europa eta Amerika guztian zehar ikus daitezke *skinhead* eta *boneheads*-ak, eta elkarren artean liskar ugari izaten dituzte. Aipagarria da Alemanian urteroz izaten diren istiluak, III. Reich-aren aldeko manifestazio nazian doazen *bonehead*-en eta ospakizunengatik protestatzen duten *skinhead* antifaxisten artean.

Euskal Herrian

Skinhead mugimendua Euskal Herrian ska musikarekin batera sartu zen, eta adibide garbiena *Kortatu* taldea da. Irun aldean hasi ziren Oi!Oi!Oi! oihuak



entzuten 80ko hamarkadaren lehenengo urteetan, nahiz eta geroago indarra galdu zuen.

Badirudi *skin* mugimendua berriro sendotu zela 90eko hamarkadan, batez ere Arrasate aldeko *Des-Kontrol Oi!* musika taldearen inguruan. Gaur egun Arrasaten zertxobait urritu bada ere, Euskal Herriko leku askotan ikus daitezke *skinhead*-ak. Oi! musika taldeak ere badaude, adibidez, Beasaingo *Hellbeer Boys* edota Donostiako *Kalekumeak*, batzuk aipatzearren. Gainera, *Skalariak* bezalako ska talde famatuek ere taldekide *skinhead* eta *rudeboys*-ak dituzte.

Ikus daitekeenez, *skinhead*-ak aspaldidanik datoz eta edozein tokitan agertzen dira. Beraz, ez da harritzekoa Zumaian ere zenbait gaztek *skinhead* estiloan janztea. Denborarekin ikusiko da fenomeno hau moda edo bolada bat izan den edota Zumaian jarraipena izango duen hiri tribu bat sortu den.

ertz
informatika

tresna digi
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

Antonio Etxabe

Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA

Mota guztietako altzariak eta arotzegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Alberdi
Gizonezkoen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA
Taberna

juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

ITSASKI
SUPERMERCATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

ZINE FORUM

Otsailak 23, osteguna, gaueko 10:15ean

Flores rotas**Zuzendaria:** Jim Jarmusch **Aktoreak:** Bill Murray, Jeffrey Wright, Sharon Stone, Jessica Lange

Andregairik gabe geratu ondoren, itxuraz dena du Don Johnstonek (Bill Murray). Egun batean, arrosa koloreko txartel bat jasoko du, bere

lehengo andregai batek sinadurarik gabe bidalia, euren harremanetan seme bat izan zutela jakinarazten diona. Horrek bizitza erabat alda liezaioke, eta berriak bidaia bat egitera behartuko du. Bidaia denboran egingo du, semeak 16-19 urte izan ditzakeelako, baina espazioan ere bai, bere lau andregai ohiak oso leku desberdinetan bizi baitira.

Istori horretan oinarrituta, Jim Jarmusch-ek oso film bikaina egin du: alde batetik, sakona, andregai ohiengana joan eta haiekin daukan oraingo harremanen bidez jakingo dugulako lehengo harremanak nolakoak ziren; bestetik, serioa ere bada pelikula, besterik gabe ondo bizitzeak protagonistari porrot egin duelako kontzientzia sortuko diolako eta konturatuko delako iraganak ere ez duela ez xarmarik ez ezer bere-tzat. Autista bizimodu horretatik irteteko, itxaropen bakarra izan lezake: seme hori ezagutzea. Egoera desberdinak ageri dira filmean, eta desberdin landuko ditu zuzendariak: umoretsu, samur, gogor... Hitz batean: harribitxi baten aurrean gaude.

Martxoak 9, osteguna, gaueko 10:15ean

Es más fácil para un camello**Zuzendaria:** Valeria Bruni Tedeschi **Aktoreak:** Valeria Bruni Tedeschi, Chiara Mastroianni, Marysa Borini

Federicak arazo larri bat du: aberatsa da, oso aberatsa. Diru kopuru itzel hori aurrezki kutxa batean izatea gutariko inorentzat ez litzateke arazoa izango. Federicari, ordea, ez dio bizitzen uzten, eta bizi

nahi duen bizitza aurrera eramateko pisu astuna da. "Arazo" horri beste batzuk gehituz gero (berekin haurrak izan nahi dituen senargaiaren presioa, amorante ohi baten itzulera, nahi gabe gainera erortzen zaizkion arazo familiarrak...), emaitza hauxe da: bizitza oso aldrebesa. Egunerokotasuna jasateko, Federicak irudimenean aurkituko du kontsolamendua; izan ere, ametsetan errealtatea perfektua eta zoragarria da.

Protagonista depresioaren eta porrotaren atarian dago, baina pelikula honetan barne drama hori ikuspegi desberdin batetik ikusiko dugu. Ideia garbi eta zehatz bat ageri da: ohiturak, batzuetan, geuk sortzen ditugula, eta kexatu arren, behin eta berriz sortzen ditugula, babes bila edo, kanpokoarengandik gordetzen gaituen aterpe segurua balitz bezala. Pelikulan, Valeria Bruni-Tedeschiren lana ederra da, eta pertsonaiarekiko samurtasuna eta sinpatia sorraraziko dizkigu. Zuzendari hasiberriak lan bikaina egin du bere lehen pelikulan, egoera zailtan geure nahi eta ametsetan nola babesten garen eta nolako arazoak eragiten ditugun kontatuta.

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

IKASTAROK

Kzguna Zumaia 943862866

- Otsailaren 6tik 17ra, 16:00etatik 18:00etara.
- Otsailaren 20tik martxoaren 3ra, 18:00etatik 20:00etara.
- Matxoaren 6tik 17ra, 10:00etatik 12:00etara.
- Martxoaren 20tik 31ra, 9:00etatik 11:00etara.
- Otsailak 17 (ostirala) 18:00etatik 20:00etara, eta Martxoak 24 (ostirala), 11:00etatik 13:00ra, It Txartelego azterketa eguna da.

Behoko Plaza gizarte zentroa : 943-862741

- Saloiko Dantzak. Larunbatetan, 16:30ean eta 18:00etan.

Gizarte Zerbitzuek antolatuta 943-862200

- "Aprender a comunicarse con eficacia" PEPA BOJOren esku.

IRTEERAK

Turismo Bulegoak Antolatuta: 943-143396

TXANGOAK:

- Otsailaren 18an: IPARRALDEKO Gazteluen Ibilaldia
- Martxoaren 11ean: BASTIDA - SAMANIEGO - ELCIEGO

BISITA GIDATUAK

- Otsailak 25 eta martxoak 18: ZUMAIA KULTURALA
 - Otsailak 26 eta martxoak 26: ZUMAIA-DEBA Trekking.
 - Otsailak 19 eta martxoak 12 eta 19: ZUMAIKO NATURA: Algorri, itsaslabarra...
- Kultur Etxeak antolatuta: 943-861056
- Martxoaren 2an: Donostiako Kursaal aretora: ABBA The Show ikustera. Sarrerak kultur etxean, otsailaren 15etik 24ra.

DEIALDIAK

- BALEIKEREN BIGARREN ESKUKO LIBURU ETA DISKO AZOKA: Otsailaren 11tik 12ra, Alondegian.
- SAHARAKO HERRIAREKIN ELKARTASUN ASTEA: Martxoaren 6tik 12ra: Hitzaldiak, filmak eta erakusketa Alondegia aretoan.
- ZUMAIKO XII.MENDI ASTEA: martxoaren lehen hamabostaldian, mendiko ikusentzutekoak.
- MARTXOAREN 8RAKO KARTEL LEHIAKETA: Gaia, "Emakumeon eskubideak". Bi koloretan. Epea: otsailaren 17a. Antolatzailea Urola Kostako Emakume Taldea.
- SANTELMOAK 2006:

Antolaketa bilera, otsailaren 24ean, 7etan turismo bulegoan

- ARGAZKI AUKERAKETA 2006: argitalpenetarako argazkiak lortzeko deialdia. Lanak aurkezteko epea, martxoaren 31a. Oinarriak kultur etxean.
- HAUR ZINEMA ZIKLOA: udalaren babesean, igande arratsaldeetan Aita Marin: otsailaren 5,12 eta 26ean, martxoaren 5, 12 eta 19an, eta apirilaren 2 eta 9an.

OTSAILA

- 17, ostirala 22:00etan, Aita Marin, Erniarraitz Bertsolari Sariketaren II. Kanporaketa saioa. Bertsolariak: Aritz Aranburu, Egoitz Eizagirre, Jokin Gijarro, Unai Gijarro, Behat Gaztelumendi eta Unai Muñoa. Aurkezle: Jon Maia.
- 19, igandea 12:00etan, haur antzerkia TXALO taldearen "Kantervilleko mamua"
- 22, asteazkena 17:30ean, Haur Liburutegian, APIKA taldearen esku, ipuin-kontaketa, "Misterioak"
- 23, osteguna 22:15ean, Aita Marin, zine forum saioa "Flores Rotas"



Inauteriak

Otsailaren 24tik 27ra, ZUMAIKO INAUTERIAK

24tik 27ra:

ZUMAIKO INAUTERIAK (Ikusi egitaraua)

27, astelehena

15:00etan eta 17:00etan, haur jaialdia: Pirritx eta Porrotx, "Maite zaitut"

MARTXOA

3, ostirala

22:00etan, Aita Marin, BIARRITZEKO BALLEAREN ikuskizuna

5, igandea

Zumaiko lasterketa: 09:30ean gazteak, eta 11.00etan helduak.

9, osteguna

22:15ean, Aita Marin, zine forum saioa "Es más fácil para un camello"

11, larunbata

18:00etan, Forondan, Emakumearen Eguneko Kontzertua.

12, igandea

Zumaiko Ibilaldi Neurtua.



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



taberna
JUSTA

eguneko bazkariak

Erribera kalea, 20



LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083



**zumaiako
herri eskola**

MATRIKULA IREKIA

Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako matrikula epea zabalik

otsailaren 6tik 17ra

Heziketa euskalduna, anitza eta kalitatezkoa eskaintzen duen ikastetxe publikoa.

Urte batetik hasi eta hogeitau urte bitarteko heziketa

- Ingeles goiztiarra (4 urtetik aurrera).
- Teknologia berriak: informatika, irratia.
- Giza baloreak eta elkarbizitza lantzen ditugu.
- Irakasle eta gurasoen arteko hartu-eman sendoa
- Irakasleen formakuntza etengabea.
- Zerbitzuak: jangela, garraioa.

Anima zaitez!!!

**Haur Hezkuntza
Lehen Hezkuntza**

Helbideak:
Aita Mari, 44,
tf.: 943 861 037; faxa: 943 862 501
posta elektronikoa: 012972aa@hezkuntza.net
Sagarbidea, 1
tf.: 943 861 693



**Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntza
Logse Batxilergoak**

Giza eta gizarte zientziak
Teknologia
Natur eta osasun zientziak

Heziketa Zikloak

Elektrizitatea (erdi mailakoa)
Administrarritza eta finantzak (goi mailakoa)

ZUMAIAKO INSTITUTUA
Aita Mari auzoa, 45
tf.: 943 860 809 / 943 862 320
faxa: 943 860 810
posta elektronikoa: zuminst@euskalnet.net
web orria: www.zumaiאה.com